



07/14 ALKATETZA DEKRETUA

Busturian, 2014ko abuztuaren 28an.

San Kristobaleko basilizan, eleizpeko hegoaldeko alboaren itxitura lanak egiten dagozala ikusita eta kontutan hartuta beharrezko udal baimenik ez daukela, honen bidez ZERA EBAZTEN DOT:

1. San Kristobaleko basilizan egiten ari diran lanak berehalaxe geldiaraztea.

2.- Lanen arduradun titularraren ordezkaria dan F. R. A. jaunari jakinarazpen honen barri emotea eta egindakoak Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 220 artikuluan ezarritakoaren arau-haustea suposatu daitekela.

3.- Interesatuei jakinarazi, edozein lan egiteko, proiektua eta aurrekontua aurkeztu behar dabela eta honek Batzorde Informatzailean eta Tokiko Gobernu Batzordean tratatu ondoren, emongo jakela behar daben baimena.

4.- Lanen arduradunei ohartarazi, ezin izango dabela lanak egiten jarraitu, jagoken udal baimena ez dauken bitartean.

3.- Udalaren hurrengo Informazio Batzordean Dekretu honen berri ematea.

ALKATEA,